

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KULTURA, HEZKUNTZA ETA KIROL SAILA

Hezkuntza Zerbitzua

16. ildoaren diru-laguntzak ematea. Vitoria-Gasteizko Udalaren Hezkuntza Zerbitzuak antolatzen dituen hezkuntza programetan parte hartzen duten ikastetxeentzako garraiorako diru-laguntzak, 2018-2019 ikasturtea

Tokiko Gobernu-Batzarrak 2018ko abenduaren 14an egindako ohiko bileran, onetsi egin dira 16. ildoaren diru-laguntzak ematea - Vitoria-Gasteizko Udalaren Hezkuntza Zerbitzuak antolatzen dituen hezkuntza programetan parte hartzen duten ikastetxeentzako garraiorako diru laguntzak, 2018-2019 ikasturtea.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea-renak, 40. artikuluan eta 45. artikuluko b) puntuan ezarritakoa betez, honako hau argitaratu da, informazioa emateko xedez:

16. ildoaren diru-laguntzak ematea - Vitoria-Gasteizko Udalaren Hezkuntza Zerbitzuak antolatzen dituen hezkuntza programetan parte hartzen duten ikastetxeentzako garraiorako diru laguntzak, 2018-2019 ikasturtea.

2018ko urriaren 22an argitaratu ziren ALHAOn, 2018-2019 ikasturtean Vitoria-Gasteizko Udalaren Hezkuntza Zerbitzuak antolatzen dituen hezkuntza programetan parte hartzen duten ikastetxeentzako garraiorako (16. ildo) diru laguntzen deialdi publikoa eta oinarri espezifikoa, 2018ko urriaren 5ean Tokiko Gobernu-Batzarrak egindako ohiko bilkuran onartutakoak. Deialdiaren laburpena 2018ko urriaren 22an argitaratu zen ALHAOn, eta data horretatik aurrera hasi zen zenbatzen eskariak egiteko epea.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta Vitoria-Gasteizko Udaleko diru-laguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen udal ordenantzak ezarritakoa betez eta 2018. urterako Vitoria-Gasteizko Udaleko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarrietan (Tokiko Gobernu-Batzarrak 2017ko abenduaren 1ean onartua) jasotakoarekin bat etorrita, balorazio-organoa elkartu da, eta, aipatutako deialdi horretan egin diren eskariak kontuan hartuta, diru-laguntzak emateko eta ukatzeko proposamena egin du.

Indarrean dagoen gastuen aurrekontuan, Kultura, Hezkuntza eta Kirol Sailaren 2018ko udal aurrekontu luzatuko 2319 02 3261 48108 kontu-sailean, zehazki, nahikoa diru-izendapen badagoela kontuan hartuta, Tokiko Gobernu-Batzarrak 2016ko maiatzaren 24an eskumenak eskuordetzeari buruz hartutako erabakiaren bertutez, Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saileko zinegotzi ordezkariak honako proposamen hau egin du, Tokiko Gobernu-Batzarrak azter dezan,

Akordioaren proposamena

Lehena. I. eranskinean zerrendatzen diren diru-laguntzak onestea eta ematea, bertan agertzen diren ikastetxeen alde 2018-2019 ikasturterako, eta bakoitzarentzat zehazten den zenbatekoan, guztira 11.284,00 eurokoa. Diru laguntza, Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saileko Udal aurrekontuaren 2319 02 3261 48108 partidaren kontura emango da. Onartutako diru laguntza bi ordainketetan gauzatuko da: lehenengoa, 2018ko udal aurrekontuaren kontura, eta bigarrena, 2019ko udal aurrekontuaren kontura, baldin eta aurrekontu horretan kreditu egokia eta nahikoa badago.

Ebazpen honen kontra, administrazio bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da zuzenean Euskal Herriko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Euskal Herriko Auzitegi Nagusian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik kontatuta, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko abenduaren 21ean

Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saileko zinegotzi ordezkaria
ESTÍBALIZ CANTO LLORENTE

I. eranskina: ikastetxe onuradunak eta emandako diru-laguntza

Ikastetxeak	2018-2019 ikasturterako emandako diru-laguntza	2018an gauzatu beharreko lehenengo ordainketa	2019an gauzatu beharreko bigarren ordainketa
CEIP Adurtza Ikastola HLHI	457,60	152,52	305,08
CEIP Aldaialde HLHI	48,40	16,18	32,22
CEIP Ángel Ganivet HLHI	831,60	277,17	554,43
CEIP Antonio López de Gereñu HLHI	488,40	162,78	325,62
CEIP Divino Maestro HLHI	344,00	114,66	229,34
CEIP Errekabari HLHI	166,40	55,46	110,94
CEIP Judimendi HLHI	170,00	56,66	113,34
CEIP Luis Dorao HLHI	337,20	112,39	224,81
CEIP Mariturri HLHI	593,40	197,78	395,62
CEIP Odón de Apraiz ikastola HLHI	295,80	98,59	197,21
CEIP Salburua HLHI	358,20	119,39	238,81
CEIP San Martín HLHI	789,60	263,17	526,43
CEIP Toki Eder ikastola HLHI	287,00	95,66	191,34
CEIP Umandi ikastola HLHI	755,20	251,70	503,50
CPEIPS Calasanz HLBHIP-Escolapios	468,40	156,12	312,28
CPEIPS Inmaculada Concepción HLBHIP	469,60	156,56	313,04
CPEIPS Niño Jesús HLBHIP	368,40	122,70	245,70
CPEIPS Olabide Ikastola HLBHIP	1.255,80	418,56	837,24
CPEIPS Santa María Marianistas HLBHIP	766,80	255,57	511,23
CPEIPS Vera Cruz HLBHIP	278,60	92,86	185,74
IES Lakua BHI	496,00	165,36	330,64
IES Zabalzana BHI	164,00	54,66	109,34
IPI Ikasbidea HLBHIP	1.093,60	364,50	729,10
Guztira	11.284,00 euro	3.761,00 euro	7.523,00 euro